

# JOSTE-LANAK ETA KONFIDENTZIAK



**Joste-lan errazak egiten ikasi, eta teknikekin eta ehungaiekin esperimentatuko dugu instalazioak sortzeko gure inguruan. Elkarrekin egoteko unea izango da «josten» emango dugun denbora, baita jakinduria eta konfidentziak partekatze eta material berriekin esperimentatzeko ere.**

## Helburuak

- María Jiménez obrara eta lan-prozesuetara hurbiltzea.
- Etxeko lanei dagozkien ehungintza-lanak ikastea, genero-roletatik haratago pertsonen arteko topaketa- eta zaintza-espazio gisa duten balioa berreskuratuz eta aldarrikatuz.
- Eskotariko ehungintza-material eta -teknikekin esperimentatzea, sormen-gai gisa.
- Joskintzarekin lotuta dauden etxeko lanak ikertzea, haiei buruzko gogoeta egitea ikuspegi kritikotik, eta haien ondare-balioa aitortzea.

## Aipamenak

*Ehun-arteak:*

*Pegando la hebra... Texturas de lo textil, Exposición, Escultura, Fotografía, Instalación:* <https://www.arteinformatado.com/agenda/f/pegando-la-hebra-texturas-de-lo-textil-180570>

*Objeto Artístico, Videoperformance, oct 2019 | ARTEINFORMATADO:* <https://artishockrevista.com/2020/12/18/obra-de-mano-arte-textil-contemporaneo/>

*Artistak, obrak:*

*María Jiménez Moreno:* <https://www.facebook.com/MjM.MariaJimenezMoreno/>

*María Bueno: Tejiendo la Sobremesa, Morisca-Chuza y Pollo Repollo – María Bueno (mariabueno.es)*

*Kae Newcomb. Obrak:* <https://kaenewcomb.com/section/492795-Everyday.html> ; <https://kaenewcomb.com/section/492800-Tree-of-Life.html>

*Andrea Hauer:* <https://www.andreahauer.com/textil>

## Proposamenaren garapena

### Aurkezpena

**1.** María Jiménez La Labor proiektuaren analisiaren bidez, joste-lanei buruzko eztabaidari eta gogoetari ekingo diegu, baita etxeko munduarekin eta emakumeekin duten loturari buruzkoa ere, gure iraganarekiko eta orainarekiko ikuspegi kritikotik batetik.

• Abiapuntu gisa erabil ditzakegun galderak: Zer egiten da zuen etxeetan jantzi bat adabatu behar denean? Josi behar bada, nork egiten du? Beste garai batzuetan, nork uste duzue zeukala horren ardura? Lehen, non edo nola ikasten zen horrelako lanak egiten? Zergatik gertatzen zen hori? ...

• Obrari buruz: Zergatik uste duzue joskintza dela Mariak hausnartzeko aukeratzen gaia? Zergatik uste duzue proiektuan emakumeekin aritzen dela soilik? Nolako uste duzue dela parte-hartzaileek eta artistak partekatzen duten denbora hori? (zeri buruz hitz egiten duten, zer partekatzen duten...) Zerk bultzatzen du María proiektu hori egitera? Zein izan liteke bere asmoa? Zer bide edo hizkera erabiltzen ditu proiektuaren esperientzia dokumentatzeko eta era berean aurkezteko?

### Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

**1.** Senideren batek edo gertuko norbaitek lagunduta, ehungintzarekin erlazionatutako lan erraz bat egiten ikasiko dugu gutxienez, esate baterako: galtzerdi bat adabatzea, botoiak jostea, pasaratze bat egitea, bufanda bat ehuntzea, inzialak brodatzea, patchwork tankerako oihalkiak jostea, etab.

Aurkezpenean planteatutako auziak gure inguruan nolakoak diren ikertzeko aprobeztatuko dugu tarte hori: gure etxean nork hartzen duen zeregin horien ardura, nork irakatsi dion pertsona horri, zein zen aspaldiko egoera, etab. Eskolara eramango ditugu hasitako joste-lanak.

**2.** Bikoteka edo hirukoteka, denbora-tarte bat (saio bat, gutxienez) emango dugu etxean hasitako lanak amaitzeko, nola egiten diren erakusteko elkarri, ikertutakoa kontatzeko, beste konfidentzia batzuk... Azken batean, «josteko» eta partekatze espazio bat sortuko dugu.

**3.** Ikasitakoa eta ikertutakoa taldekideei azalduko diegu, informazioa komunean jartzeko. Gure etxeko norbaiti ere irakats diezaiokegu zer ikasi dugun.

Horrela, jakintza horiek etxetik eskolara eta eskolatik etxera joango dira.

**4.** Mariaren beste lan batzuk ikusiko ditugu, eta, nahi izanez gero, baita beste artista batzuenak ere (ikusitakoak), eta ehungintzan jarriko dugu arreta, sormen-gai gisa: prozesuen, tekniken, gaien eta emaitzen aniztasunean. Joskintzaren edo ehungintzaren ekintza errebindikazio-begirada batetik lantzen duten obretan arreta ipintzeko aukera ere badugu.

**5.** Gure eskola-ingurunean nola eta zer motatako ehuneko eskulturak edo instalazioak sortu nahiko genituzkeen eztabaidatuko dugu. Horretarako, gure lanak (joste-lanak), beste material eta teknika batzuk, ikasitakoa eta eztabaidatutakoa eta abar erabiliko dugu. Lagungarri izan dakiguke jarraitu beharreko lerro edo jarraibide bat edo batzuk zehaztea, adibidez:

• Naturaren edo paisaiaren elementu baten antza izatea edo hura gogora ekartzea (lorategi bat, ur-jauzi bat, baso bat...).

• Ikastetxeko elementu fisiko batean jartzea eta hura eraldatzea (lehoi bat, aulki bat, atezaindegia, zuhaitza, korridoreko zoruak, su-itxalgailua...).

• Material jakin batzuk baino ez erabiltzea. Adibidez: egindako lanak, oihalkiak eta artilezko ehunak.

• Etxean ikertu duguna eta sortutako eztabaidekin ekarritako hausnarketak kontatzea edo jasotzea (esaldiak, ikerketei buruzko informazioa, izenburua bera,...).

**6.** Adostu eta erabaki egingo ditugu lan-lerroak eta lantaldeak, erabili beharreko materialak, instalazioak non egingo ditugun, etab. Instalazioak/eskulturak sortu eta argazkien bidez dokumentatu.

### Ondorioak eta lerro irekiak

**1.** Argazkiak postal bihurtu eta joste-lanak egiten erakutsi zigun hurbileko pertsonari bidali. Izenburua, konfidentzia bat, esker ona, prozesuan ikasitako zerbait eta abar idatz dezakegu atzean.

**2.** Mariari mezu elektronikoa bat bidali edo bere Facebook-eko horman idatzi gure proiektua laburki kontatzeko: nola bizi izan dugun esperientzia, nolako izan den prozesua, hausnartutakoa... eta gure sorkuntzen argazkiak gehituko ditugu.